



Lana / La obra

XXXVI. Lizardi Saria 2017

Ander begitan hartua dute ikaskide batzuek. Mila deabrukeria egiten dizkiote eta ez dute bakean uzten. Anderrek, ordea, ez ditu salatu nahi. Sasiolako errota abandonatura eramango dutela egiten diote mehatxu, hango mamuarekin gaua igarotzera. Herrian beti izan dira zurrumuruak eta kontu ilunak Sasiolako errotari buruz. Aspaldiko istorio beltz bat, inork argitu gabekoa, gordetzen da horma zahar haien artean. Pixkanaka, duela 60 bat urte gertatutako pasadizoak eta gaur egungo gorabeherak korapilatuz joango dira misteriozko kontakizun honetan.

Bullynga, belaunaldiz belaunaldi gazte-txoen artean sortzen diren harremanak jorrazten dira ipuin honetan, misterio eta beldur ukitu batez.

Fitxa tekniko / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Sasiolako errotaria**
Egilea / Autor: **Ramon Olasagasti Aiestaran**
Saila / Colección: Auskalo, 55
Irudigilea / Ilustrador: Xabier Sagasta
ISBN / EAN: 978-84-9109-293-3
Salneurria / Precio: 10 € (BEZ barne – IVA incluído)
Adin gomendatua / Edad recomendada: 10-13 urte
Orri kopurua / N° páginas: 96
Formatua / Formato: 14 x 20,5 cm



Egilea / El autor

Ramon Olasagasti Aiestaran Berrobin jaioa da, 1972an. Kazetaritza ikasi zuen Leioan, eta *Euskaldunon Egunkarian* eta *Berrian* jardun zuen lanean, hainbat sailetan. Mendia izan du beti gogoko eremua, eta mendiko informazioa jorratu izan du prentsan. Mendiari lotuta argitaratu ditu hainbat liburu, *Mendiminez* biografia liburua; *Josune Bereziartu, hatz puntak*; *Hiru pauso, hiru norabide*; *Sei arrasto Eskandinavian* besteak beste. Gaur egun, itzulpengintzan egiten du lan. Haur literaturako zenbait ipuin ere eman ditu argitara: *Sugaar* (Lizardi Saria, 2014) eta *Ipurtargien herrian* (2014).

Xabier Sagasta Lacalle (Arrasate, 1982) marrazkilaria eta arkitektoa da. Irudikatzeari inoiz utzi ez diolarik, lanbide bilakatu zuen ikasketak bukatutakoan, ideiak komunikatzeko, iragana aztertzeko eta etorkizuna proiektatzeko eskaintzen dituen baliabide hobe ezinez ziur. Horrela, hainbat alor jorrazten ditu bere lanaren egunerokotasunean: liburuak eta diskoak ilustratuaz batzuetan, paisaia eta arkitekturarekin lotutako proiektuetan marrazkia analisi tresnatzat erabiliaz besteetan, edo komiki laburrak sortuaz bakarka zein lantaldean.